



ERREALITATEA ENTZUN, ITXAROPENA BERRITU

MEMORIA 2025





Caritas
Gipuzkoa

AURKIBIDEA

1. ORDEZKARIAREN MEZUA

Errealitatea entzun, itxaropena berritu	5
---	---

2. GIZARTE-BAZTERKETA GIPUZKOAN: EGITURAZKO ERREALITATE BAT

Bidelagun gaituzten pertsonen eta etxeen profila	6
--	---

3. ESKU-HARTZE SOZIALAREN EREMUAK

3.1. Bizirauteko laguntzak eta diru-sarrerak	9
3.2. Bizitoki-inklusioa eta etxebizitza	10
3.3. Akonpainamendu soziolaborala	11
3.4. Eskola- eta hezkuntza-laguntza	12
3.5. Inklusio komunitarioa	13
3.6. Akonpainamendu juridikoa eta eskubideei buruzkoa	14

4. NAZIOARTEKO LANKIDETZA

	15
--	----

5. KRISTAU-KOMUNITATEA, ANIMAZIO KOMUNITARIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

5.1. Topaguneak eta bizitza komunitarioa	16
5.2. Hezkuntza-ingurune sentsibilizazioa	17

6. KOMUNIKAZIOA ETA ERAGIN PUBLIKOA

	18
--	----

7. ALIANTZAK, SAREKO LANA ETA ENPRESEKIKO HARREMANA

7.1. Aliantzak eta sareko lana	19
7.2. Bihotzdun Enpresak	19

8. BORONDATEZKO LANA

	20
--	----

9. KUDEAKETA, FINANTZAZIOA ETA GARDENTASUNA

	21
--	----

FUNTSEZKO DATUAK: CARITAS GIPUZKOA 2025

	24
--	----

dragă
Empatie

Tristura

asa, bine
asa

Ikusi dut
suecte handia
dudala eta
etz dugu
balorak.

IASUNA

PENTE AMENDUA
Sua 2004

ULÇRIZEA
ALATASUNA

POSTASUNA

Piles hiri
erri
en meli
freder
huf abo
ilustrat
nita

1 ORDEZKARIAREN MEZUA: Errealitatea entzun, itxaropena berritu

Memoria hau egiteko orduan, gogoan ditugu “gure garaiko gizon eta emakumeen gozamenak eta itxaropenak, tristurak eta larritasunak; batez ere, pobrezia-egoeran daudenenak eta sufritzen dutenenak” (*Gaudium et Spes*). Testuinguru horretan, nabarmendu nahi nuke, alde batetik, zer nolako espektatibak eta itxaropenak sortu dituen abian jarritako ezohiko erregularizazio-prozesuak ehunka mila migratzailerengan, haien duintasuna aitortu, justizia egin eta bizikidetza ez hain zalantzarik eta seguruago baterako ateak ireki baitizkie, eta aukera eman baitie gure gizarte osoaren ongiari ekarpena egiteko.

Ez dut ahaztu nahi orobat munduko hainbat lekutan dagoen eta hainbeste pertsona atsekabetzen dituen gatazka- eta indarkeria-giroa: Ukraina, Gaza eta Israel, Libano, Iran, Sudan, Kongo... Leon XIV.a aita santuak apirilean Afrikara egindako bidaian esan zuen bezala, “Jainkoak bakea nahi du herrialde bakoitzarentzat, bake bat berekin dakarrena, ez bakarrik gatazkarik eza, baizik eta justizia eta duintasunaren adierazpena; eta hori posible da bakarrik barkamenak eta bake-nahiak bihotzak konkistatzen dituenenak”.

Eskertzen diogu, baita ere, pertsona pobreenganako maitasunari buruzko *Dilexi te* erregu apostolikoa; dokumentu motibatzaile eta argigarria da karitate kristaua bizi nahi dugunontzat pertsona ahulenen aldeko apustu irmoaren bitartez. Gure hurbiltasuna eta haiekiko konpromiso zehatza izango da beti gure ebanjelioaren kalitateak erakutsiko duena; izan ere, “kristau-komunitatearentzat pobreak ez dira kategoría soziologiko bat, Kristoren haragia bera baizik” (Leon XIV.a).

Premisa horretatik abiatuta, Caritas Gipuzkoaren memoriak errealitatea entzutera eta itxaropena berritzera gonbidatzen gaitu. Horretarako, badugu oso tresna baliotsu bat: FOESSA 2025 txostena, Euskadiko gizarte-bazterketari buruzko begirada kontrastatu bat, dimentsio anitzekoa. Bada, gizarteratze-maila Estatuko batezbestekoaren gainetik dagoela egiaztatu arren, oraindik ere gizarte-bazterketak (larria eta moderatua) gure inguruko biztanleen % 11,8ri eragiten diela islatu du FOESSAk. Datu horrek erakusten du beharrezkoa dela Caritasek eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuek egoera horietan dauden pertsonen alde duten konpromisoa.

Caritas Gipuzkoak 10.000 pertsona baino gehixeago artatu zituen 2025ean. Gehienak migratzaileak edo atzerriar jatorrikoak ziren. Zuzeneko arreta horrekin batera, nabarmenezkoa da beste herrialde batzuetako eliz erakundeei emandako laguntza: El Salvador, Bolivia, Ekuador, Guatemala, Bangladesh, Kenya eta Kongokoak, besteak beste. Laguntza hori 600.000 eurotik gorako nazioarteko lankidetzaproiektuak finantzatuz eman da.

Gure memoriak, batez ere, eskerrak emateko izan behar du, Caritas Gipuzkoak hainbat eta hainbat boluntarioren eta profesionalen parte-hartzeari esker funtzionatzen baitu, baita parrokiako taldeen harrera eta akonpainamenduari, emaile eta kolaboratzaileen laguntza ekonomikoari eta administrazio publikoen babes instituzionalari esker ere. Eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, gure gotzain Fernandori bere hurbiltasunagatik; izan ere, 2025ean gure erakundeko zenbait talde eta fundazio bisitatu baititu. Azkenik, eskerrak eman nahi ditugu hainbat eta hainbat laikoren inplikazioagatik, baita gure elizbarrutiko apaiz eta erlijioso askok egiten duten talde-lanagatik ere. Eskerrik asko guztioi.

Patxi Aizpitarte,
Caritas Gipuzkoako gotzain-ordezkaría

2. GIZARTE-BAZTERKETA GIPUZKOAN: EGITURAZKO ERREALITATE BAT

2025ean, Caritas Gipuzkoak **10.183 pertsona** artatu zituen guztira, **4.065 etxetakoak**. Batez ere, etxe gazteak, jatorri migratzaileko pertsonak eta presio material eta zaintza-lan handiagoa jasaten duten emakumeak izan ziren.

Datuen analisiak erakusten du bazterketa hori zenbait **zailtasun pilatzearen** ondorio dela, hala nola diru-sarrerak, enplegua eta etxebizitza lortzeko zailtasunak, eta harreman eta eskubide faltagatikoak, baita oztopo administratiboen zama handiak eragindakoak ere. Zailtasunen batura horrek gutxitu egiten ditu autonomia garatzeko eta gizartean parte hartzeko eta haren zati izateko urratsa emateko aukerak.

Horregatik guztiagatik, ikusten dugu kasu gehienetan ez gaudela premia koiunturalen aurrean, baizik eta **egiturazko bazterketa** baten aurrean, zeinak erantzun integralak eta egonkorak behar baititu.

2025ean, Caritas Gipuzkoak 10.183 pertsona artatu zituen, 4.065 etxetakoak.

Jarraian, 2025ean Caritas Gipuzkoa bidelagun duten familien profil bat eskainiko dugu baieztapen horiek oinarritzeko:

GENEROA

10.183
pertsonaren
bidelagun




5.321 emakumeak (% 52,25)

4.862 gizonak (% 47,75)

Sexuaren araberako banaketak erakusten du 2025ean emakumeen presentzia handixeagoa zela artatutako pertsonen artean. Horrek, desberdintasun kuantitatibo bat erakustez gain, islatzen du **emakumeek** intentsitate handiagoz bizi dituztela hauskortasun ekonomikoa, zaintza-lanen gainkarga eta diru-sarrera egonkor eta nahikoak lortzeko zailtasunak.

ADINA

Adin-tarteen araberako azterketak erakusten du Caritas Gipuzkoak **biztanle gazte eta heldu gazteei** laguntzen diela batez ere. Horrek esan nahi du bazterketa-prozesuek beren bizi-proiektua eraikitzeko funtsezko etapa batean dauden pertsonen eragiten dietela, bai eta zaintzapean seme-alabak dituzten etxeei ere. Horrek indartu egiten du gure akonpainamendua gero eta gehiago migrazio-prozesuekin, lan-ezegonkortasunarekin eta eskubideetarako sarbiderik ezarekin lotuta dagoen ideia.




ETXE-MOTA

Etheen osaerak **familiako eta belaunaldi arteko dimentsio** handia erakusten du. Zailtasun indibidualetan bakarrik ez, ahultasun bereziko testuinguruetan diren familien kasuan ere jarduten dugu bidelagun; adibidez, haurrak hazten ari diren etheen kasuan. Era berean, bakarrik dauden pertsonen ehuneko handiak agerian uzten du ez dagoela laguntza-sarerik, eta isolamendua jasateko arrisku handiagoa dakar horrek.



JATORRIA


Bidelagun izan gaituzten pertsonen jatorria da ezaugarri esanguratsuenetako bat. Datu horrek argi eta garbi erakusten du **migrazio-prozesuen zama** Caritas Gipuzkoara iristen diren gizarte-bazterketako egoeretan. .



EGOERA ADMINISTRATIBOA

Artatutako 10 pertsonatik 6 egoera administratibo irregularrean egoteak argi eta garbi adierazten du Gipuzkoan gertatzen den gizarte-bazterketaren parte handi bat ez dela soilik diru-sarrerarik ezaren ondorio, baizik eta eskubideak benetan eskuratzea mugatzen duten **oztopo juridikoen** ondorio ere bai.

Dokumentu-irregularitasunak zuzenean baldintzatzen ditu enplegua, etxebizitza, gizarte-babesa, erroldatzea eta sustraitze-prozesuak lortzeko aukerak. Horregatik, faktore erabakigarria da desparrekotasunerako eta bazterketa kronifikatzeko.



BAZTERKETAREN IRAUNKORTASUNA

2025ean artatutako lau pertsonatik ia batek 2023a baino lehen jotzen zuen Caritas Gipuzkoara. Horrek erakusten du ezen, kasu askotan, gizarte-bazterketa gainditzeko zaila dela berez, eta, ondorioz, erraz luzatzen dela denboran.

Horrek indartu egiten du ideia hau: aurrean duguna ez dira behar koiunturalak soilik, **egiturazko arazo** bat da, eta, horregatik, erantzun egonkorrak, iraunkorrak eta prozesu konplexuetan denboran lagun egiteko gai direnak eskatzen ditu.



% 24, 2023tik artatuak



3. ESKU-HARTZE SOZIALAREN EREMUAK

3.1. Bizirauteko laguntzak eta diru-sarrerak

Diru-sarrera nahikorik ez edukitzea da oraindik gizarte-bazterketaren adierazpenik zuzenenetako bat. Etxeek oinarritzko premiak bete ezin dituztenean, zailtasun materialak larriagotzeaz gain, gizarteratze-prozesuei eusteko gaitasuna ere ahuldu egiten da. Egoera askotan, urritasun ekonomiko hori beste zailtasun batzuekin nahasten da, hala nola bizitoki-ezegonkortasuna, lan-prekaritatea edo eskubideak lortzeko oztopoak.

2025ean, Caritas Gipuzkoak **5.702 pertsonari** lagundu zien eremu honetan, eta **1.177.006 euro** bideratu zituen bizirauteari eta diru-sarrerei lotutako zuzeneko laguntza ekonomikoetara.



5.702 pertsona



1.177.006 €



Esku-hartzearen eginkizuna eta ikusitako aldaketak

Erantzuna, batez ere, **parrokia-sarearen** bidez egituratu zen, zeinak, berriz ere, funtsezko rola bete baitzuen pobrezia-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eta etxeei entzun, premiak antze-man, lehenengo harrera egin eta egunerokoan eusteko lanean.

Laguntza horiei esker, larrialdi ekonomikoko egoerei aurre egin ahal izan zitzairen. Kasu askotan, sakoneko egoera ez zuten beren kabuz konpondu, baina oinarritzko egonkortasun bat izatea ahalbidetu zuten, bazterketa larriagotzeko arriskua murriztuz. Horren balioa, beraz, ez datza soilik mobilizatutako bolumen ekonomikoan, baizik eta **haustura handiagoak saihesteko, eguneroko egonkortasuna zaintzeko eta inklusio-ibilbideak irekita mantentzeko** duen gaitasunean.

3.2. Bizitoki-inklusioa eta etxebizitza

Etxebizitza duina, egokia eta egonkorra lortzea da gizarteratzeko baldintzarik erabakigarrienetako bat. Eskubide hori ahultzen denean, bizitoki-bazterketa larriagotzeaz gain, eragina du osasunean, enpleguan, eskolatzean, errolatzean, bizitza komunitarioan eta egonkortasuna duen bizi-proiektu bati eusteko aukeran.

2025ean, Caritas Gipuzkoak **2.444 pertsonari** lagundu zien eremu honetan, eta **937.544 euro** bideratu zituen etxebizitzari, ostatuari eta bizitoki-arretari lotutako laguntza ekonomikoetara.



2.444 pertsona



937.544 €

Esku-hartzearen eginkizuna eta ikusitako aldaketak

Eremu honek bizitoki-bazterketa larriaren arriskua murrizten eta bizitegi-egonkortasuneko gutxieneko baldintzei eusten laguntzen du. Helburua ez da **bizilekura edo laguntza ekonomikora** mugatzen, hausturak saihestea, bizi-ibilbide hauskorrak babestea eta ingurune seguruagoak eskaintzea ere badu helburu, horiek baitira, **gizarte- eta hezkuntza-akonpainamenduaren** bidez, gizarteratze-prozesuei eusteko edo haiek berreraikitze oinarriak.

Laguntza ekonomikoaren zatirik handiena **lurralde-sarearen** bidez (2.118 pertsona) eta **Bidelagunen** bidez (67 pertsona) bideratu zen. Bestalde, **Hotzaldik** eta **Aterpek** bizitoki-bazterkeriako edo etxegabetasuneko egoerari zeuden 137 pertsona hartu zituzten. **Trintxerrek**, **Emekik** eta **Sorabillak** 66 pertsona lagundu zituzten bizilekua izateko, gizarte-arretako eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku hartzeko prozesuen bidez. Azkenik, **Zubia** programak etxebizitza-galerarekin edo bizitoki-ezgonkortasunarekin loturiko egoerei erantzun zien; kasu gehienetan, zaintzapean adingabeak zituzten familiak izan ziren (56 pertsona). Urte amaieran, gainera, **Miriam Etxea** zabaldu genuen Erreterian. Emakumeei bereziki zuzendutako egoitza da.

3.3. Akonpainamendu soziolaborala

Enplegua izatea eta prestakuntza-prozesuetan parte hartzea erabakigarria da oraindik ere gizarteratze-ko. Prestakuntzarako, hizkuntza ikasteko, lan-ohiturak hartzeko edo enplegu duin bat lortzeko benetako aukerak falta direnean, ahuldu egiten dira autonomiarako, egonkortasun ekonomikorako eta parte-hartze sozialerako aukerak.

2025ean, Caritas Gipuzkoak **1.834 pertsonari** lagundu zien eremu honetan, eta **163.582 euro** bideratu zituen prestakuntzarekin, enpleguarekin eta akonpainamendu soziolaboralarekin lotutako laguntza ekonomikoetara.



1.834 pertsona



163.582 €

Esku-hartzearen eginkizuna eta ikusitako aldaketak

Akonpainamendu soziolaboralak enplegarritasuna hobetzea, autonomia pertsonala eta autoestimua indartzea eta parte-hartze ekonomiko eta sozialerako aukerak zabaltzea du helburu. Prozesu horien barruan sartzen dira gaitasun pertsonalak, sozialak, linguistikoak eta lanekoak eskuratzea, espektatibak berreskuratzea eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide egonkorragoak irekitzea.

2025ean egindako esku-hartzeak honako hauek bildu zituen: **oinarrizko prestakuntza**, akonpainamendu-**ibilbide pertsonalizatuak**, **kualifikazio**-espazioak eta **enplegua lortzeko** aukerak. Horri parroquia-saretik egindako akonpainamendua gehitu zitzaion, zeinak 2025ean 1.001 pertsonari eman baitziren arreta.

Alfabetatzeko oinarrizko prestakuntzari dagokionez, 183 pertsonak hartu zuten parte **gaztelaniazko eskoletan** 2025ean: 143k Donostian eta 40k Goierrin. Programa hauek gertuko akonpainamendu-prozesuak, ikaskuntza praktikokoak eta laguntza ekonomikokoak antolatu zituzten: **Miriam** (566 emakume), **Lamorus** (34 pertsona), **Altza Baratza** (35 pertsona) eta **Lazkao Baratza** (15 pertsona). Gainera, iaz zuzeneko **78 lan-aukera** sortu ziren; haietatik 57 Miriamen, 11 Goierrin eta 10 Bihotzdun Enpresetan.

3.4. Eskola- eta hezkuntza-laguntza

Hezkuntza-desberdintasunak pobrezia eta gizarte-bazterketa gertatzeko bideetako bat dira oraindik ere. Haurrak eta nerabeak prekaritateak, hizkuntza-oztopoek edo laguntza nahikorik ezak markatutako testu-inguruetan hazten direnean, areagotu egiten dira ikaskuntzei eusteko, baldintza berdinetan parte hartzeko eta hezkuntza-ibilbideak arrakastaz garatzeko zailtasunak.

2025ean, Caritas Gipuzkoak **63 familietako 96 haurri** lagun egin zien **Bultzada** programaren bidez.



96 haur



63 familia

Esku-hartzearen eginkizuna eta ikusitako aldaketak

Eskola- eta hezkuntza-laguntzari esker, **ikaskuntzei eutsi** zitzaien, **ikasteko ohiturak** indartu ziren, **eskola-rekiko lotura** hobetu zen eta haur eta familientzako **babes- eta konfiantza-espazioak** sortu ziren. Ekarpena ez da errefortzu akademikora mugatzen, ongizate emozionalean, aukera berdintasunean eta haurtzarotik bazterkeria-ibilbideak prebenitzen ere laguntzen baitu.

Esku-hartzea, batez ere, eskolako errefortzuko hiru gune osagarriren bidez garatu zen: **Bultzada**, **Kumme** eta **Ikasi Akademia**. Haietan guztietan bi alderdi nagusi lantzen dira: lehena, laguntza (banakakoa eta taldekoa) eskolako lanetan eta ikaskuntzetan, bai eta gizarte- eta hezkuntza-akonpainamendua ere. Horretaz gain, ikastetxeekiko koordinazioa eta ikasle bakoitzaren jarraipena ere barne hartzen ditu. Bigarrenik, arlo horrek hezkuntzaren **familia-dimentsioa** lantzen du, eta indartu egiten du gurasoen inplikazioa, eta, ondorioz, eskolan jarraitzea bultzatzen du.

3.5. Inklusio komunitarioa

Gizarteratzeko, oinarrizko premiak asetzeaz gain, beharrezkoak dira honako hauek ere: pertsonen arteko loturak, partaide izateko espazioak, elkarrekiko aitorpena eta bizitza sozialean eta komunitarioan parte hartzeko benetako aukerak. Honela laburbildu genezake: zerbaiten parte sentitzea.

300 pertsonak parte hartu zuten Caritas Gipuzkoako zentroek, programek eta lurralde-espazioek bultzatutako inklusio komunitarioko ekimenetan.



300 parte-hartzaile

Esku-hartzearen eginkizuna eta ikusitako aldaketak

Eremu honetan garatutako ekintzen helburua da **isolamenduari eta gizarte-desloturari konponbidea** aurkitzea. Helburua da espazio partekatatuak eskaintzea, harreman esanguratsuak sortzea eta komunitateko kide izatearen esperientzia berreraikitzea.

Kulturaren eta aisialdiaren eremuan, bisitak sustatu ziren Aquariumera, Albaolara, Arantzazura, Santa Klara, Balenciaga Museora eta Zinemaldira, besteak beste. **Jarduera fisikoari eta kirolari** dagokienez, irteerak egin ziren hondartzara edo mendira, surf-, eski- edo futbol-jarduerak gauzatu ziren edo ping-pong eta futbolin-txapelketak bultzatu ziren. Iaz, halaber, hainbat **jai eta ospakizunetarako gune eta pertenenentziazko espazio** antolatu ziren, hala nola "Zapore Anitz" arrozak, Trintxerpeko Karmengo jaietako tortilla-lehiaketa, arkumearen festa, Gabonetako errezitaldiak, afari partekatatuak eta zenbait udalerritako jaietan parte hartzea. Sorabilla zentroak Artzain Onaren katedralaren 75. urteurrena zela-eta antolatutako luminiszentzia-ikuskizunean ere parte hartu zuen. Azkenik,

arlotan **parte hartzeko espazioak eta sare komunitarioak** landu zituen. Aterpek, adibidez, erabiltzaileekin batera pentsatutako eta antolatutako jarduerak abian jartzeko dinamika bat finkatu zuen, baita auzoarekiko lotura sustatzera bideratutako hogeitak bat jarduerak ere. Gainera, eremu horren barruan, indartu egin zen auzoekiko, auzo-elkarteekiko, tokiko merkataritzarekiko, Erlauntza sarearekiko eta inguruko beste espazio batzuekiko harremana.

3.6. Akonpainamendu juridikoa eta eskubideei buruzkoa

Eskubideak benetan eskuratzeko ez dago haiek formalki aitortuta egotearen mende bakarrik, baita pertsonen haiek ezagutu, egiaztatu eta baldintza errealetan baliatu ahal izatearen mende ere. Irregularitasun administratiboko egoerak daudenean edo erroldatzeko eragozpenak, dokumentuetan zailtasunak edo administrazioarekiko harremanetan oztopoak daudenean, oinarritzko eskubideak eskuratzeko gaitasuna ahuldu egiten da, eta lehendik dauden bazterketa-prozesuak larriagotu egiten dira.

2025ean, Caritas Gipuzkoak **800 pertsonari** lagundu zien arlo horretan, informazio, orientazio eta babes juridikoko ekintzen bidez.

Esku-hartzearen eginkizuna eta ikusitako aldaketak

Arlo horren helburua da irregularitasun administratiboko edo legezko babesgabetasuneko egoerei aurre egin behar dieten edo sistema arauemailea ezagutzen ez duten pertsonen **oinarritzko eskubideetarako sarbide eraginkorra bermatzea**. Hori gauzatzeko, arreta indibidualizatua eskaini zen, izapideak egiteko eta zerbitzu publikoekin eta erakunde espezializatuarekin koordinatzeko akonpainamendua eskaini eta lan pedagogikoa egin zen. Helburua zen berme gehiago izatea honako hauek eskuratzeko: dokumentazioa, administrazio-erregularizazioa eta/edo etxebizitzarekin, osasunarekin, enpleguarekin edo familia-bizitzarekin lotutako beste eskubide batzuk.

Lan-esparru nagusiak hauek izan ziren: atzerriartasuna, sustraitzea, nazioarteko babesa, erroldatzea, familia berriz elkartzeko eta eskubideak urratuta edo mugatuta zeuden beste egoera batzuk.



800 pertsona aholkatu



4. NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Caritas Gipuzkoaren nazioarteko lankidetzak karitatearen dimentsio unibertsala eta justizia globalarekiko konpromisoa adierazten ditu, elkarrekikotasunean, garapen integralean eta tokiko protagonismoan oinarritutako anaitasunezko lankidetzaz-eredu batetik abiatuta. Leon XIV.ak adierazi duen bezala, "bakea ez da gatazkaren ondorengo hilobiko isiltasuna, ez da zapalkuntzaren emaitza, baizik eta pertsonen begiratzen dien eta haien bizitza suspertzen duen dohaina".

2025ean, Caritas Gipuzkoak nazioarteko lankidetzako proiektuak bultzatu zituen 9 herrialdetan. Guztira, 611.218 euroko inbertsioa egin zuen laguntzetan, eta 12.235 pertsonarengana iritsi zen zuzenean.

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak

Esparru honetan bultzatutako proiektuen helburua da **garapen-prozesuak** sustatzea, **tokiko gaitasunak** indartzea eta **nazioarteko elkartasunaren** kontzientzia indartzea. Horretarako, tokiko erakundeek eta bazkideek proiektuak babestu ziren, pobreak, desparekotasunak eta gatazkek bereziki markatutako testuinguruetan.

Proiektuei dagokienez, 2025ean lau eremu nagusitan lan egin zen.

- **Emakumea:** proiektuak egin ziren Guatemalan, Kenyan, Bolivian, Beninen eta Mozambiken, 228.311 euroko inbertsioa baliatuta, eta 4.075 onuradun izan ziren.
- **Elikagaien segurtasuna:** jarduerak egin dira Bolivian, Bangladeshen, El Salvadorren eta Ekuadorren, 334.675,58 euroko inbertsioarekin, eta 16.673 onuradun izan dira.
- **Hezkuntza.** Dimentsio akademikoa barne hartzen duten proiektuekin, baina baita balioetan hezteko eta komunitatea indartzea ere. Ekuadorren, Bolivian eta Kongoko Errepublikako Demokratikoan egin dira proiektuak, eta 43.231,38 euroko inbertsioa eta 724 onuradun izan dituzte.
- **Erakunde gisa indartzea.** Caritas Finlandiarekin garatutako proiektu batean zentratu da. 5.000 euroko inbertsioa bildu du eta 1.500 onuradun izan ditu. Jarduera honek indartu egin du eliz eta gizarte-sareekiko lankidetzak, konplexutasun bereziko testuinguruetan.



9 herrialde



12.235 pertsona



611.218 euroko
diru-laguntzak

Proiektuez gain, Nazioarteko Lankidetzak bere jardueraren **sentsibilizazio- eta zabalkunde**-prozesu bat jarri zuen abian iaz, Caritas Gipuzkoako, elizbarrutiko, zonako taldeetako eta parroketako talde profesionalen partekatutako hitzaldi eta espazioen bidez eta Irungo Taupagunean eta antzeko espazioetan bere partaidetza indartuz. 2025ean hasitako beste lan bat **nazioarteko boluntarioritza** sustatzekoa izan da, Cáritas Españolak sustatutako prestakuntzetan parte hartuz.

5. KRISTAU-KOMUNITATEA, ANIMAZIO KOMUNITARIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Caritas Gipuzkoak animazio komunitarioko eta sentsibilizazioko ekintzak bultzatzen ditu. Ekintza horien helburua da **kristau-komunitateen** bizitza indartzea, **parte-hartze soziala** sustatzea eta **bazterketako errealitateak** hurbiltzea hainbat kolektibori. 2025ean, eremu honek askotariko publikoetara egokitutako ospakizunak, kaleko jarduerak, hitzaldiak, bisitak, tailerrak, kanpainak eta sentsibilizazio-proposamenak sustatu ditu.

5.1. Topaguneak eta bizitza komunitarioa

Espazio horien helburua da kristau-komunitatea osatzen dugun pertsonen arteko topaketa eta errekonozimendua bultzatzea, zenbait jardueratan parte hartuz eta, horrela, loturak eta partaide izatearen sentimendua sendotuz.

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak



Zentzu horretan, **gizarte-dimentsioa duten eliz ospakizunak** sustatu ziren; besteak beste, Gabonetako ospakizuna (Groseko San Inazio elizan, Donostian) edo Gabonetako Kontzertu Solidarioa (Donostiako Udal Txistulari Bandarekin eta Mariaren Bihotza Abesbatzarekin lankidetzan). Elizbarrutiko hiri-udalekuak antolatzeko ere lagundu zuen.

Espazio publikoetako jarduerak dagokienez, 2025ean Opil Solidarioaren VI. edizioa egin zen; Irungo Taupagunea sentsibilizazio-gunea (etxebizitzari eta pertsona migratzaileen egoerari buruzko eztabaida publikoekin); eta Pertsona Migratzaileen Eguna gogoratu genuen zen Bidasoko mugan ekitaldi sinboliko batekin. Aktiboki parte hartu genuen, halaber, Isilune Zirkuluetan. Berritasun gisa, iaz jarri ziren martxan TaupaGros (Donostiako San Inazio elizaren inguruan) eta Taupa-bira. Azken honek ekimena Errenteria, Elgoibar, Tolosa, Zumarraga eta Zumaiara hurbildu zuen. Gainera, lehen aldiz, Afari Solidario bat sustatu zen, Caritasek lagun egiten dien gazteen egoerari buruzko sentsibilizazio-dinamika gisa.

5.2. Hezkuntza-ingurune sentsibilizazioa

Gizarte bidezkoago bat eraikitzeko, hezkuntza-prozesuak ere behar dira, pobrezia, bazterketa eta haien kausak ulertzen laguntzeko, baita zenbait balio sustatzeko ere, hala nola duintasuna, elkartasuna, justizia soziala eta konpromiso komunitarioa. Esku-hartzea **proposamen pedagogikoen** bidez antolatu zen, bai ikasgeletan, bai ikasgeletatik kanpo. Jarduera horrek, gainera, hezkuntza-munduarekin batera egiten den lana indartzen laguntzen du.

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak

Caritas Gipuzkoak **30 sentsibilizazio-saio** baino gehiago eman zituen ikastetxeetan (Lehen Hezkuntza, DBHn eta Batxilergoan), eta **500 ikasle** baino gehiagok parte hartu zuten.

2025ean, besteak beste, zentro hauetan egon gara: Toki Alai, Pio Baroja, Hirubide, Oianguren, La Salle-Legazpi, Iraurgi, Antigua-Luberri, Salestarrak-Urnieta, Zumaia, Cebank eta Beasaingo ikastola. Horretaz gain, **12 bisita** antolatu dira ikastetxe eta programetara (Hotzaldi, Lamorus, Altza-Baratza eta Gizaide), **ikasgelako lanak** babestu dira (La Salle-Donostia, Laskorain ikastola), eta baita irakasleekin adostutako beste proposamen batzuk ere (Iraurgi ikastetxeko bizikidetzak). Gainera, **auzolandegietako** esperientzia batzuk bideratu ziren Argizai Scout Taldea-Bilbaorekin (Trintxer, Lamorus eta Gizaide) eta Deustuko Unibertsitatearekin (Aterpe eta Sorabilla). La Salle-Bilbao Ibilbide Solidarioaren bisita ere jaso genuen.

Datu horiek erakusten dute jarduerak nabarmen egin duela gora aurreko urtearekin alderatuta, bai parte hartu duten ikasleei dagokionez, bai garatutako ekintzen aniztasunari dagokionez.



500 ikasle



30 saio

Hezkuntza-arloko sentsibilizazio-lana **Sentsibilizazio Mahaian** oinarritu zen, zeinak hezkuntza-espazioetara eramateko materialak landu baititu (dinamikak, bideoak, glosario komun bat...), baita saioen ebaluazioa hobetzeko tresnak ere.



6. KOMUNIKAZIOA ETA ERAGIN PUBLIKOA

Caritas Gipuzkoaren komunikazioak eta eragin publikoak helburu dute herritarrei hurbiltzea entitatea bide-lagun dutenen errealitatea, bazterketaren irakurketa bidezkoago eta konplexuago bat sustatzea, eta konpromiso komunitarioa eta instituzionala indartzea askotan ikusezinak diren egoeren aurrean. Horrela, entitateak sentsibilizatzeko eta eragiteko duen gaitasuna indartzen dute, eta, horretarako, komunikazio publiko eraldatzailea sustatzen dute.

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak

60 agerpen baino gehiago komunikabideetan. **77 albiste** zabandu dira kanal propioen bidez.



2025ean, jarraipena eman zitzaion **etxebizitza duina** izateko eskubideari buruzko kanpaina-sorta bati ("*Itxaropena izateko etxebizitza*, 2025eko Garizuma; "*Etorkizun berria eraikitze*ko etxebizitza", 2025eko Corpusa). Era berean, iraileko kanpaina bertan behera utzi zen, ikasturte hasiera Etixerik Gabeko Pertsonen Mundu Egunen zentratzeko.

Gainera, **5 prentsaurreko** antolatu ziren (Opil Solidario, Memoria, Etixerik Gabeko Pertsonen Eguna, eta Miriam Etxearen eta Irungo Taupagunearen irekiera), eta **60 elkarrizketa eta esku-hartze** baino gehiago koordinatu ziren komunikabideetan, kontratatutako langileen, boluntarioen eta Caritaseko partaideen parte-hartzearekin. Horri 3 iritzi-artikulu eta prentsa-oharrak gehitu behar zaizkio. Eremu digitalean, Caritas Gipuzkoaren **webgunearen birdiseinu integrala** jarri zen abian, eta 77 albiste argitaratu ziren ele bitan, erakundearen webgunea eta sare sozialak elikatuz.

Gainera, bideo espezifiko batzuk egin ziren Garizuma, Pazko, Abendu eta Eguberrietako **liturgia-kanpaine-tarako**, baita erreportaje sakon bat ere M8aren harira (*Bazterketak, generoak bereizten al ditu?*). Arloaren lana honako hauekin osatzen da: entitatearen zentro eta programen komunikazioari eta karteiei emandako laguntza, material espezifikoak egitea, ekitaldien laburpenak egitea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, hala nola Donostiako Elizbarrutiarekin eta Cáritas Españolarekin.

7. ALIANTZAK, SAREKO LANA ETA ENPRESEKIKO HARREMANA

Caritas Gipuzkoak sareko lana eta enpresekiko harremana bultzatzen ditu, erantzukidetasun soziala indartzeko, sinergiak sortzeko eta sare ekonomikoa laguntzen dituen errealitateetara hurbiltzeko estrategia gisa.

7.1. Aliantzak eta sareko lana

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak



2025ean, Caritas Gipuzkoaren sare-lanari eta aliantza instituzional eta sozialei esker, 50 harreman-, koordinazio- eta lankidetzak baina gehiagotan antolatu ziren, gehienak kanpokoak, gizarte-erakundeekin, zerbitzu publikoekin, administrazioekin, Elizbarrutiarekin, Cáritas Españolarekin eta lurraldeko beste eragile batzuekin batera. Lotura horiek aukera ematen dute diagnostikoak partekatzeko, erantzunak koordinatzeko eta gizartean eragiteko eta hura eraldatzeko gaitasuna indartzeko.

7.2. Bihotzdun Enpresak

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak



“Bihotzdun Enpresak” ekimenaren bidez, lurraldeko enpresekiko elkarrizketa, lotura jasagarriak sortzea eta lankidetzak modu zehatzak esploratzea sustatzen du Caritas Gipuzkoak, gizarteratzea eta laneratzea ardatz hartuta. Ekimen horrek gizarteratzeko aukerak zabaltzen laguntzen du, erantzukidetasun sozialeko logika batetik abiatuta.

2025ean, **24 bisita eta aurkezpen** egin ziren Gipuzkoako enpresetan. **18 lankidetza-hitza** sinatu ziren.

laz, Bihotzdun Enpresak ekimenak **50 harreman-, koordinazio- eta lankidetza-gunetan** baino gehiagotan parte hartu zuten, eta garrantzi berezia izan zuten gizarte-erakundeekiko, zerbitzu publikoekiko eta lurraldeko beste eragile batzuekiko kanpoko loturek. Gainera, topaketak eta lan-gosariak sustatu ziren, enpresa-sareari Gipuzkoako errealitate soziala hurbiltzeko eta lankidetza-modu zehatzak aztertzeko. Guztira, **24 aurkezpen** eta bisita egin ziren enpresetara, eta **18 lankidetza-akordio** sinatu ziren, hala gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak sortzera bideratutako aliantza-sarea indartuta.

Azaroaren 26an, **jardunaldi/gosari** bat egin zen Gipuzkoako Ganberan, ardatz hartuta lan-baimenak kudeatzeko eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitzea, atzerriarrak laneratzeko erronken eta eragileen arteko lankidetza indartzeko beharraren testuinguruan.

8. BOLUNTARIOTZA

Caritas Gipuzkoaren gizarte-ekintza gure inguruneko pobrezia-ekin eta bazterketarekin konprometitutako pertsonen inplikazioan oinarritzen da. Eremu honek lurraldean parte-hartze sozialerako sare zabal bati eusten eta boluntariotzak funtsezko eragile gisa (akonpainamendurako, komunitaterako eta eraldaketa soziale-rako) betetzen duen rola indartzen laguntzen du.

Esku-hartzearen eginkizuna eta ekintza-ildo nagusiak

2025ean 861 boluntariok parte hartu zuten Caritas Gipuzkoan, eta haietatik 152 lehen aldiz jardun dira.

**861
boluntario**



% 65 emakumeak



% 35 gizonak



Boluntarioak zaintzeak berekin dakar harrera-, prestakuntza-, akonpainamendu- eta partaidetza-prozesuak eskaintzea, haien konpromisoa, Caritasen misioarekin duten lotura eta parte-hartze sozial eta komunitarioko esperientzia indartzeko. Eremu honetako esku-hartzea lau ildo osagarriren bidez egituratu da:

- **Harrera eta onarpena:** hilean bi hitzaldi informatibo eskaini dira boluntario berrientzat. Zeregin horietaz 4 boluntariok osatutako Zaindu kudeaketa-taldea arduratzen da.
- **Akonpainamendua eta jarraipena:** boluntariotza-arloaren eta zerbitzu, zentro eta programen arteko koordinazio-bilerak, baita akonpainamendua emateko eta jarraipena egiteko espazioak ere. Gainera, antolaketa-espazioak, hala nola Boluntariotzako Mahai Teknikoa eta Erreferenteen Mahaia.
- **Prestakuntza:** nabarmentzekoak dira Ibilian 2025, Topaki 2025 – Caritas Euskadiko boluntarioen topaketa eta erakundearen urteko batzarra. Era berean, “Entzuteko artea” tailerra, “A25: GEEtik abiatuta, indarkeria matxistei aurre egitea” prestakuntza, eta “Norbere burua zaindu, Caritaseko bidelaguntza eta gizarte-lana sendotzeko” eta “Espiritualitatea bihotzetik eta arrazoitik” tailerrak. Honako gai hauek landu dituzte, besteak beste: pobrezia, duintasuna, espiritualtasuna, osasun mentala eta zaintza.
- **Topaketa- eta errekonozimendu-guneak:** besteak beste, Boluntarioen Gala edo Zarautz, Zumarraga eta Beasaingo Boluntarioen azokak.

9. KUDEAKETA, FINANTZAZIOA ETA GARDENTASUNA

Eremu honek Caritas Gipuzkoaren ekintza guztiei berme osoz eusten laguntzen du, eta baliabideak pertsonengana, etxeetara eta lagundutako prozesuetara modu eraginkorrean iristea ahalbidetzen du. Egiten duen ekarpenaren isla da hauetara bideratutako kudeaketa: funtsen erabilera etikoa, proiektuen egonkortasuna, finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa eta kontuak ematea. Konfiantzaren, erantzukidetasunaren eta guztion onarekiko konpromisoaren adierazpena da hori guztia.

2025ean, Caritas Gipuzkoak **9.461.467 euroko** jarduera-bolumena kudeatu zuen guztira.



Caritas Gipuzkoaren gizarte-ekintzak kudeaketa sendoa, gardena eta arduratsua behar du. Esparru horretan, kudeaketa ekonomikoa eta antolamendukoa erakundearen iraunkortasuna bermatzera bideratuta dago, eta hori aurrekontuaren plangintzaren eta jarraipenaren bitartez lortzen da, baita kudeaketa administratiboaren, programen zeharkako laguntzaren, barne kontrolaren eta kontuak ematearen bitartez ere. Hala, Caritas Gipuzkoak iaz kudeatutako **9.461.467 euroek** erakundearen arlo, programa eta laguntza guztien jarduerari eusteko balio izan zuten.


Diru-sarreraren jatorria

Caritas Gipuzkoaren diru-sarreraren % 39 bazkideengandik eta emaileengandik dator; % 28, herentzietatik eta legatuetatik; % 25, administrazio publikoetatik; eta % 8, erakunde laguntzaileetatik eta beste sarrera propio batzuetatik. Osaera horrek erakusten du **oinarriak gehienbat propioa izaten jarraitzen duela** (% 75), eta horrek indartu egiten du entitatearen autonomia eta erantzuteko gaitasuna.

NONDIK DATOZ DIRU-SARRERAK?

% 75 DIRU-SARRERA PROPIOAK

- **Bazkideak eta emaileak**
- **Herentziak eta legatuak**
- **Erakunde laguntzaileak**
- **Beste diru-sarrera propio batzuk**



% 25 FINANTZIAZIO PUBLIKOA

- **Administrazio publikoak**



Ildo horretan, balio handia ematen diogu mundu justuago bat eraikitzeko lanean laguntzen duten **1.794 emaile eta bazkide** baino gehiagoren konpromisoari.

Gastuaren banaketa **arloan arabera**:


LURRALDEKO EKINTZA	3.144.614 €	% 33
ETXERIK GABEKO PERTSONAK	1.673.384 €	% 18
BIZITOKI-BALIABIDEAK	2.110.460 €	% 22
ENPLEGAGARRITASUNA	626.136 €	% 7
PROGRAMA ESPEZIFIKOAK	132.354 €	% 1
NAZIOARTEKO LANKIDETZA	664.307 €	% 7
GARAPEN INSTITUZIONALA	166.324 €	% 2
ONDAREAREN KUDEAKETA	364.654 €	% 4
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	579.234 €	% 6

9.461.467 €

Zuzeneko laguntza ekonomikoak

2025ean, Caritas Gipuzkoak emandako zuzeneko laguntza ekonomikoak 2.278.134 €-koak izan ziren. Hona-ko helburu hauetara bideratu ziren: **biziraupena eta diru-sarrerak** (1.177.006 €); **etxebizitzarekin** lotutako gastuak, hala nola alokairuak edo hornidurak (937.544 €); eta **prestakuntza-prozesuak eta enplegua** (163.582 €).

**Urteko kontuak ikuskatzeaz ALTER CONSULTING arduratu da, eta aldeko txostena eman du, inolako salbuespenik gabe. Donostiako Elizbarrutiko Caritasek kanpoko berrikuspenaren pean jartzen du urtero bere kudeaketa ekonomikoa, gardentasunarekin, gobernu onarekin eta gizarte-konfiantzarekin duen konpromisoaren seinale.*



FUNTSEZKO DATUAK: CARITAS GIPUZKOA 2025

JARDUERAREN BOLUMENA, GUZTIRA:

9.461.467 euros

Haietatik

2.278.134 €

pertsonei eta familiei zuzeneko
dirulaguntzak.

10.183 pertsonaren bidelagun

4.065 etxetakoak.

1.794 bazkide eta emaile aktibo

Eskerrak ematen dizkiegu mundu justuago bat
eraikitzeko hartu duten konpromisoagatik.

861 BOLUNTARIO

74 KONTRATATUTAKO PERTSONA

- 66 zuzeneko esku-hartzean
- 4 kudeaketan
- 4 prestakuntzan, boluntariorian eta animazioan

ORGANIGRAMA

Lehendakaria: **Mons. Fernando Prado**

Zuzendaritza-taldea

Gotzain-ordezkaria: **Patxi Aizpitarte**

Zuzendaria: **José Ramón Aramendi**

Idazkari nagusia: **José Emilio Lafuente**

Administratzailea: **Kontxi Elexpe**